



Zuzendari hori,

Mezu honen bidez, EPEko praktikaldiaren kudeaketarekin lotutako jarraibide batzuk bidaltzen dizkizut. Eskertuko nizuke zure ikastetxeko praktiketako irakasleen tutoreei ere informazio hau ematea.

Funtsezkoa da araudian ⁽¹⁾ zehazten diren datak betetzea; hori dela eta, HIKU aplikazioan dokumentazioa betetzeko denbora laburra izango da. Horregatik, guztion lana errazteko eta sor daitezkeen arazo teknikoak garaiz konpondu ahal izateko, aplikazioa 2024ko azaroaren 22an irekitzea erabaki da.

Garrantzitsua da prozesu honetan bi alderdi nabarmentzea:

1. **Baimenen kudeaketa.** Zuzendariak "R63 Praktikaldi_tutoretza" rola esleitu behar die tutoreei, administrazio delegatuaren bidez. Ikasturte hasieran izendatutako tutorea bajan edo antzeko egoeraren batean badago, erreferentziazko ikuskariari ahalik eta lasterren jakinarazi beharko diozu, EJIk baimen berriak kudeatu ahal izateko. Zuzendari gisa ere egoera horretan bazaude, edo ebaluazio-txostena egiteko unean hala egongo zarela aurreikusten baduzu, modu berean jokatu beharko duzu.
2. **Tutoreek eta zuzendariak ebaluazio-txostenak aplikazioan bertan betetzea.** Lehenengo fase honetan (abenduaren 1era arte), funtzionarioak ebaluatzeko nahitaezkoa da eskatutako gutxieneko egunak ⁽²⁾ bete izana. Zuzendaria da hura kontrolatzeko eta EEDn erregistratzeko arduraduna.

Lau egoera gerta daitezke:

- a. **Ebaluazioa positiboa bada ⁽³⁾ eta azaroaren 22rako eta 26rako gutxieneko iraupena betetzen bada,** txostenak data horietan aplikazioan bertan betetzea gomendatzen da.
- b. **Ebaluazioa positiboa bada eta abenduaren 2rako gutxieneko iraupena betetzen bada,** txostenak data horretan aplikazioan bertan bete behar dira.
- c. **Ebaluazio negatiboa izanez gero,** txostenak abenduaren 2an aplikazioan bertan bete behar dira.
- d. **Gutxieneko iraupena bete ez bada,** txostenak ezin dira bete.

Sailaren webguneko [Ikuskaritzako orrian](#) laguntza-materiala (eskuliburuak eta bideoak) jarriko da.

Jarraibideak irakurri ondoren zalantzarik baduzu, harremanetan jar zaitez zure ikastetxeko erreferentziazko ikuskariarekin.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkizut prozesu hau aurrera eramateko egin duzun ahaleginagatik eta erakutsi duzun inplikazioagatik.

Ondo izan.

Ikuskaritzako Lurralde Burua

(1) Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduak zehazten du praktika-fasea 2024ko irailaren 1etik abenduaren 1era bitartean egingo dela, biak barne (arauan aurreikusitako salbuespenen kasuan izan ezik).

Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2024ko ekainaren 27ko jarraibideak, abenduaren 5a baino lehen, HIKU aplikazioan kudeatuta egon beharko dira hainbat pertsonen (tutoreak, zuzendariak eta ikuskatzaileak) bete beharreko txostenak.

(2) 3 hilabete eta egun 1 (irailaren 1etik abenduaren 1era, biak barne). Gehienez ere eskola-egunetako % 10a ez bertaratzea.

(3) Ebaluazioa positiboa izan dadin, item guztiak GAI/GAI gisa ebaluatu behar dira.